

AURKEZPEN JARDUNALDIA:
2021.KO BAROMETROAREN DATU NAGUSIAK eta
BELAUNALDIARTEKO ELKARRIZKETA: Ondarea eta belaunaldi arteko
ordezkapena EHSSn

Data eta tokia:

Jardunaldia 2002ko abenduak 15ean izango da, Artium-emanaldi aretoan (Frantzia kalea 24) Vitoria-Gasteizen.

Planteamendua:

Azken hiru urteetan Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak (aurrerantzean, EHSS), euskal erakundeek eta euskal gizarteak orokorrean egoera konplexu eta aurretik sumatu ezinak bizi izan ditugu, hala nola pandemia bat eta Europa barneko guda bat, zeinek milioika pertsona tokiz aldatu dituen.

Eusko Jaurlaritzak eta EHSSko erakundeek premiazko erantzunak martxan jarri zituzten larrialdi ingurunean, pandemiaren eragina pertsona zaurgarrienengan, eta gero gudarena, leuntzeko. Premiazko erantzunengandik ikasi dugu eta kasu batzuetan, ikasketa hauen ondoren, erantzun hauek programa estruktural edo elkarlaguntza sare bihurtu dira, elkarren artean eusten diren erakundeek bultzatuta. Lehenengo momentuaren konplexutasuna eta ondorengoko covid-19 olatuak egon arren, EHSSak sektore bizi eta dinamikoa izaten dirau, eta indartuta irten da, lankidetzak publiko-soziala eta gizarte elkarrizketa ere indartu direlarik.

Bestalde, EHSSko erakundeen zenbakia handitu egin da, aditzera emanez gizarte behar eta egoerei erantzuna emateak partehartzea, elkarkidetasuna eta gizarte eraldaketa sortzeko motorra izaten jarraitzen duela. 4.000 erakunde baino gehiago, ia 40.000 ordaindutako pertsona eta 160.000 pertsona boluntario inguruk EHSS sektore eraginkor eta anitza dela erakusten dute, bere lantaldeetara pertsonak eta erakundeak gehitzen jarraitzen duena. 2021ko barometroaren txostenak EHSSko datu nagusiak jasotzen ditu bere izaera, ezaugarriak, ekintza, pertsona, baliabide eta harremanen arabera, eta bere ekarpen soziala eta errealitate anitza aditzera eman nahi du, eta baita bere onarpena sustatu, eraldaketa sozialerako oinarritzko eragile bezala.

EHSSk bere aurrean dauzkan erronkak hainbat dira, bere aniztasuna gordetzea, koherentzia mantentzea eta gizarte erantzunak sortzea haien artean. Haietako batek aspalditik kezkatzen du: belaunaldi arteko ordezkapena. Nolako pertsonak sartzen dira EHSSko erakundetan? Nolako sektorea aurkitzen dute? Sektorearen nortasunari buruz, zeintzuk dira mantendu eta jakinarazteko elementu garrantzitsuak?

Gizarte eraldaketa ingurune batean, hiru trantsizioen erronka eta gudatearen eragina barne, jardunaldiak, sektorearen datuak aurkezteaz gain, elkarriketarako eremu bat sortu nahi du, non sektorearekin lotutako pertsonen belaunaldi ezberdinekin hitzegin, ondarearen funtsezko elementuei buruz.

Elementu hauen gainean erakunde eta sareetan belaunaldi arteko ordezkapena eratu daiteke, EHSS anitz, plural, solidario bat eraikitzen jarraituz; eta EHSS hau gai delarik bere erantzunak etengabe eguneratzeko, bere nortasunetik abiatuz, erronka eta desafio berriei erantzuteko, elkarrekin partekatutako erreferentzien inguruan, hala nola 2030 Agenda.

Helburuak eta egitura:

Aurkezpenak helburu bikoitza dauka:

- 1) Alde batetik, 2021ko Barometroaren EHSSko datu nagusiak: kopuru nagusiak, jarduera, pertsonak, ekonomia-baliabideak, kudeaketa tresnak, eta kanpo eta barne harremanak. Eta hau dena 2020ko Liburu Zurian izendatutako erronken eta covid-19ren eraginaren testuinguruan.
- 2) Beste alde batetik, belaunaldi arteko elkarriketa esparru bat eskaintzea, profil ezberdinetako pertsonen artean (boluntarioak, ordainduak, erantzukizun postuekin...), bai ibilbide luzekoak eta bai sektorerara heldu berriak, EHSSren izaera eta baloreei buruz hitzegin dezaten. Elkarriketa honako galderen inguruan egon daiteke:
 - a. Nolako EHHSS itxi dute jubilatutako direnak? Nolako ondarea itxi nahi dute?
 - b. Nolako EHHSS jasotzen dute sartzen diren belaunaldi berriak? Nolako ondarea jaso dute?
 - c. Ondarearen zein elementu dira gako etorkizuneko erronka eta desafioei erantzuteko?

Horregatik jardunaldiaren egitura bi multzoetan banatzen da, helburuei erantzunez:

- 1) Barometroaren datuen aurkezpena
- 2) Belaunaldi arteko elkarriketa



Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Programa:

10:00. Partehartzaileen harrera

10:05. Jardunaldiaren aurkezpena

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. EUSKO JAURLARITZA

10:20. 2021ko Barometroaren datu nagusien aurkezpena.

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA

10:50. Mahai ingurua. Belaunaldi arteko elkarriketa: ondarea eta belaunaldi arteko ordezkapena EHSSko erakundeetan

12:00. Lunch-gosaria